



Lehiaren
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca
de la Competencia

PRENTSA-OHARRA

LEAk Bizkaiko Psikologiako Elkargoari 2.347 euroko isuna ezarri dio bere kideek emandako zerbitzuen gutxieneko ordainsariak bateratzeko ahalmena mantentzeagatik. Halaber, bere kideen ordainsariei buruzko edozein aipamena egitea debekatu dio.

Bilbo, 2017ko apirilaren 26a

Lanbide-elkargoek ordainsariak finkatzea guztiz debekatuta dago, kontsumitzaileak babestu eta euren ongizatea bermatzearren.

Elkargoek gutxieneko ordainsariak edo ordainsari orientagarriak finkatzeak bere ordainsariak libreki ezartzea oztopatzen die profesionalari, kasuaren inguruabarren arabera, eta zerbitzuen prezioak goratzen ditu. Profesionalak lehiatu ahal direnean, ordea, zerbitzu hobeak jasotzen dituzte erabiltzaileek, baita prezio hobeak ere.

Psikologiako Elkargoak debeku horren ohartarazpena jaso zuen 2009an, lehiaren agintaritzen aldetik, eta Elkargoak bere estatutuak aldatuko zituela hitzeman zuen, Legeari egokitu eta agintaritzak zehapen-espeditentea ez irekitzearren.

Hala ere, Elkargoak ez zuen aldatu ordainsariak finkatzeko ahalmena ematen zion araua, ez hitzeman zuenean, ez 2012an egin zuen aldaketan.

Bakarrik 2015ean, zehapen-espeditentea ireki zela jakinarazi zitzaionean, aldatu egin zuen estatutuetako legearen aurkako araua.

2009tik ordainsariei buruzko aipamenak informalak eta bakanak izan direnez, isun sinboliko bat ezarri zaio, Elkargoko kideak halako euroak, hain zuzen. Halaber, eta Legeari jarraiki, debekatu egin zaio ordainsariak finkatzeko jokabideak berriro egitea.

Lehiaren Euskal Agintaritza izaera administratiboko erakunde autonomoa da, eta erakunde eta funtzio-autonomia du bere eginkizunak betetzeko. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduera ekonomikoei dagokienez.

Ebazpena:

http://www.competencia.euskadi.eus/z02-contprof/eu/contenidos/informacion/resoluciones/eu_resoluci/resoluci.html¹